

2024ko BERDINTASUNERAKO PLAN ERAGILEA

Plan Eragilea epe laburreko ekintza-programa zehatza da, Mungiako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planetik sortzen dena, eta proiektu globalaren xedeak betetzea ahalbidetuko duten jardueretarako estrategiak eta baliabideak esleitzeko elementuak (ardatzak, helburuak eta ekintzak) biltzen dituena. Berdintasunerako Plana planifikatu, antolatu eta kontrolatzeko tresna horrek, epe laburrean (zehazki, urtebeteko epean, gutxi gorabehera), estrategia orokorraren islapena eskaintzen digu, eguneroko lanari dagokionez.

Horrenbestez, 2024rako Plan Eragilea aurkezten dugu. Plan hori erreferentea izango da esparru horretan, akordioa hartzen den egunetik urteko abenduaren 31ra arte edo hurrengo Plan Eragilearen konpromisoa onartzen den arte.

ARDATZAK	ERRONKAK	HELBURU ERAGILEAK	EKINTZAK
BERDINTASUNAREN ALDEKO GOBERNANTZA	UDAL-POLITIKETAN GENERO-IKUSPEGIA TXERTATZEA		
	1. Berdintasunerako Planarekiko inplikazioa areagotzea	1.1. Udal-langileek eta ordezkari politikoei Berdintasunerako Planari jarraipena eta horren kudeaketa egitea	- Urteko Plan Eragilea landu eta politikariei aurkeztu. - Hobekuntza-Batzordean urte hasieran aurkeztea.
		1.2. Herritarrei berdintasunerako politiketan inplikatze eta euren parte-hartzea areagotzeko baliabideak eskaintzea	-Herritarrei on-line bidezko kanalak eskaintzen jarraitu.
		1.3. Berdintasunerako Sailaren baliabideak egokitzea	-Urtero-urtero aurrekontua beharretara egokitzea. -Udalaz gaindiko egituretan (EUDEL eta Aldundia) parte hartzen jarraitzea.
	2. Genero-ikuspegia udal-politika guztietan txertatzea	2.1. Genero-ikuspegia udal-politiken erdigunean kokatzea	-Gida egin eta hedatzea. - Giza Baliabideen arloak kontuan hartzea langile berrien arloko prestakuntza.
		2.2. Udalak berdintasunarekiko duen konpromisoa ikustaraztea	-Adierazpen Publikoen bitartez. -Ordezkari politikoei zuzendutako trebakuntza eskaintzea. -Genero-ikuspegia integratzeko gida langile lan-kontratudunei eta integrazio berriko politikariei ematea.
	3. Berdintasunaren aldeko araudia lantzea	3.1. Berdintasuna bultzatzeko araudia lantzea	-Barne-araudia sortzea genero-ikuspegia txertatzeko irizpideekin.
		3.2. Udal-araudiak onartu aurretik, generoaren araberako eraginaren aurreko ebaluazioa egiten jarraitzea	-Desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko helburuarekin, Berdintasunerako Legearen arabera.

BERDINTASUNAREN ALDEKO GOBERNANTZA	4. Datu-bilketa eta azterlanak genero-ikuspegiarekin egitea	4.1. Udalaren datu-bilketa guztietan sexu aldagaia txertatzen jarraitzea	-Sexu aldagaia txertatzea.	
	5. Komunikazio ez-sexista eta inklusiboaren erabilera sistematizatzea	5.1. Udalak sortzen dituen euskarri guztietan, komunikazio ez-sexista eta inklusiboa bermatzea, barne dokumentazioaren arloan arreta berezia jarriz	-Komunikazio inklusiboa bermatzeko barne-araudia betetzea (genero-euskara-komunikazioa protokoloa betetzea).	
		5.2. Ordezkarri politikoen jardunean, ahozko zein idatzizko komunikazioari dagokionez, emakumeak ikustaraztea eta berdintasunaren aldekoak diren mezuak hedatzea	-Ordezkaritza politikoen artean berdintasunaren aldeko mezuak zabaltzeko konpromisoa gogoratzea.	
	6. Berdintasunaren aldeko aurrekontuak lantzea	6.1. Udalak onartzen dituen aurrekontuetan genero-ikuspegia txertatu	-Formakuntza eskaintzea.	
	7. Berdintasunaren aldeko kontratazio eta hitzarmenak egin	7.1. Udalak egiten dituen kontratazio eta hitzarmenetan, genero-ikuspegia kontuan hartzea.	-Klausua Tipok egokitzea Berdintasun Legeak hala eskatzen badu.	
		7.2. Udalak kudeatzen dituen diru-laguntzetan (balorazio-irizpide edota betebeharrak gisa) genero-ikuspegia kontuan hartzea	-Udal-erlortako dirulaguntzetan sartzen joatea.	
	8. Udal-organoetan parekidetasuna bermatzeko neurriak martxan jartzea	8.1. Agerraldi publikoetan parekotasuna bermatzea, ahal den neurrian	-Agerpen publikoetan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua izan behar dela gogoraraztea.	
		8.2. Udal-organoen osaera paritarioa bermatzea	-Araudia egokitzea parekidetasuna (60/40) bermatzeko.	
	UDAL-LANGILEEN KUDEAKETAN BERDINTASUNA TXERTATZEA			
	9. Udal-langileen kontratazioak eta promozioak berdintasunean oinarrituko dira	9.1 Udal-langileen kontratazioak eta sustapenak berdintasunean oinarritzeko neurriak bultzatzen jarraitzea	-Udal-langileentzako hautapen-prozesuetako gai-zerrendetan, berdintasunari buruzko edukiak sartzea.	
	10. Berdintasunerako trebakuntza eskaintzea	10.1. Udaleko langileak eta ordezkarri politikokoak berdintasunaren arloan sentsibilizatzea eta prestatzea, beren jardueretan genero-ikuspegia txerta dezaten	-Berdintasun-gaiak sartzea langileen trebakuntzan.	
	11. Udalean bateragarritasuna eta erantzunkidetasuna erraztea	11.2 Gizonak sentsibilizatzea, erantzunkidetasun handiagoa izan dezaten	-Maskulinitasunaren eredu hegemonikoaren ondorioei buruzko tailerrak edo ikastaroak egiteko aukera ematea.	
12. Lanerako giro eroso eta segurua bermatzea	12.2. Publikoaren aurrean indarkeriazko egoeren kudeaketari buruzko prestakuntza eskaintzea	- Trebakuntza eskaintzea.		

EMAKUMEEN AHALDUNTZEA	13. Emakumeen autonomia eta ahalduntzea sustatzea	13.1. Ahalduntze Eskolako programazio sortu emakumeen ahalduntze pertsonala eta kolektiboa bultzatzeko	-Ahalduntze Eskolako programazioa sendotzen jarraitzea (intersektionalitateari erreparatuz).
		13.2.Emakumeen autonomia sozioekonomikoa bultzatzeko ekimenak martxan jartzea Behargintzarekin elkarlanean, bereziki ekintzaitzaren eremuan	- Programa berezituak martxan jartzen jarraitzea.
		13.3. Emakumeen autozainketa eta osasuna beren bizi-zikloan zehar	-Mitoak haustea eta perimenopausian eta menopausian ohitura osasungarriak sustatzea.
	14. Emakumeen partaidetza soziopolitiko bermatzea	14.1. Udalak sareak eta lankidetzak sustatzea emakumeekin, emakume-taldeekin eta mugimendu feministarekin	- Bilera irekiak antolatzea eta emakume-taldeen eta mugimendu feministaren ordezkariekin lankidetzan jarraitzea.
		14.2. Gaztegunean emakumeen ordezkartza eta parte-hartzea handitzea	-Gaztegunean, emakumeen parte-hartzea areagotzeko esku-hartzea eta programazioa planifikatzea.
	15. Emakumeen ikuspegia eta ezagutza bermatzea	15.1. Emakumeen ezagutza bultzatzea	- Mungiako emakumeen historia berrikurtzeko kerketari amaiera emateko, Mungiako plazan emakume benedjerei buruzko podcastaren lau kapituluak aurkeztea.
		15.2. Emakumeek arlo ezberdinetan egindako ekarpenak ikusaraziz	- Emakumeak eta haien ekarpenak ikusarazteko proiektuak, kanpainak edota jarduerak

ANTOLAKETA EKONOMIKO ETA SOZIALAREN ERALDAKETA	16. Berdintasuna balore sozialtzat aitortzea eta herritarrak nahiz herriko eragileak berdintasunaren inguruan sentsibilizatzea	16.1. Data esanguratsuetan herritarrak berdintasunaren inguruan sentsibilizatzen jarraitzea	-Martxoaren 8a, maiatzaren 17a, ekainaren 28a eta azaroaren 25a ospatzea.
		16.2. Gizonak berdintasun gaietara hurbiltzea sustatzea	-Berdintasunaren aldeko gizonen sarea; konpromiso hau sinatzea. Udal-mailako aktibo bilakatzeko.
		16.3. Prestakuntzaren bitartez, berdintasuna gizarte-balio gisa mantentzeko sentsibilizatzen jarraitzea	- Genero-ikuspegidun prestakuntza-tailerrak, langabezian dauden herritarrentzat. -Familia-sare txikia eta partaidetza sozial eta komunitario urria duten emakumeentzako tailerrak.
	17. Hezkuntzaren eremuan hezkidetzaz lantzen jarraitzea	17.1. Hezkuntza formaleko eragileei baliabideak eskaintzen jarraitzea, ikastetxeetan hezkidetzaz lantzen jarrai dezaten	- Erronkak partekatzeko espazioak eskaintzea eta ikastetxeetan aukera-berdintasuna eta indarkeria matxistarik eza lantzeko neurriak proposatzea.
		17.2. Hezkuntza ez-formaleko eragileekin elkarlana bultzatzea, euren jardunean genero-ikuspegia txerta dezaten	- Genero-ikuspegia duten gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzeak egitea, lonjetan eta kalean daukagun programarekin.
	19. Zaintzaren erantzunkidetasuna eta etika bultzatzea	19.1. Zaintza-lanen garrantzia eta balioa ikusaraztea	- Zaintzaileei zuzendutako jarduerak egiten jarraitzea.
		19.2. Zaintza- eta etxeko-lanak erantzunkidetasunez banatzea sustatzea	-Maskulinitate eredu hegemonikoa lantzeko.
		19.3. Zaintzaileen egoera hobetzen jarraitzea Jagoten Programaren bitartez	-Baliabide eta tresna pertsonalak lantzen jarraitzea.

**INDARKERIA
MATXISTARIK
GABEKO HERRIA**

20. Indarkeria matxistaren aurrean, Udalak jarrera eragilea izaten jarraitzea	20.1. Adierazpen publikoak kasuaren arabera egokitzea	-Arlo honetan lanean jarraitzea.
	20.3. Herritarren Batzordeetan emakumeen aurkako indarkeriari buruzko datuak partekatzen jarraitzea	-Hiru hilean behin informatzea.
21. Indarkeria matxistarik gabeko herria izateko sentsibilizazioa lantzen jarraitzea	21.2. Gazteen artean indarkeria matxista prebenitze aldera lanean jarraitzea	- Ikastetxeetan aukera-berdintasuna eta indarkeria matxistaren prebentzioa lantzeko tailerrak. -Beldur Barik programa.
	21.3. Emakumeentzako autodefentsa tailerrak egiten jarraitzea	-Urteko ikastaroen plangintza.
	21.4. Herritarren artean indarkeria matxista prebenitze aldera lanean jarraitzea	-Jaietan indarkeria prebenitzeko ekintzak antolatu.
22. Indarkeria matxista jasan duten emakumeak hautematea, ematen zaien arreta hobetzea eta haiek berroneratzeko jarduerak sustatzea.	22.2. Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeen arreta hobetzea eta haien ahalduntze-prozesuetan laguntzea	-Zerbitzu psikologikoak eta juridikoak. -Etxebizitza baliabide gisa erabiltzea. -“Tartekari Sarearekin” elkarlanean jarraitzea.
	22.3. Indarkeria jasan duten emakumeak eta haien seme-alabak berroneratzeko ekimenak abian jartzea	- Indarkeria matxistaren ondorioz emakumeek, haien seme-alabek, senideek eta inguruan daudenek pairatzen duten sufrimendua konpontzeko eta ikusarazteko ekimenak.